



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 17a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez premiatzen da zenbait neurri har daitezen Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoei dagokienez. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paisaiaren aldetik duten interesagatik babes-tu beharreko mahastien katalogoa egin dezan. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin (4. or.).
- Castejónko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin (8. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez premiatzen da zenbait neurri har daitezen Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoei dagokienez.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko ekainaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez premiatzen da zenbait neurri har daitezen Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoei dagokienez." Horren jatorria da Sozialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez premiatzen da zenbait neurri har daitezen Lodosan eta inguruko herrietan txingor-ekaitzak kaltetutakoei dagokienez

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea txosten bat presta dezan iragan maiatzaren 24an izandako ekaitzak eragindako kalteei buruz. Txosten horre-

tan jasoko da ukitutako eremuaren mugatze geografikoa, bai eta izandako galeren zenbatespena ere.

2. Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados, S.A. (AGROSEGURO) premiatzea arindu dezan aseguratutako ustiategietan izandako kalteen tasazio-prozesua eta kaltetuei dagozkien kalteordainak ordain ditzan uzta osoa galdu den kasuetan, aseguru-kontratuetan aurreikusitako epeak bete arte itxaron gabe.

Nafarroako Gobernuak premiatzea Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren menpe dagoen Nekazaritzako Aseguruen Estatu-entitatearen aurrean susta dezan beharrezkoak diren azterlan teknikoak egitea, lehenbailehen sartzeko aldera egurrari dagozkion kalteak zurezkoen laborantzen aseguruetan, halako moduz non berme horrek babestuko dituen bai landareen gaitasun produktiboa mantentzeko beharrezkoak diren kostuak bai etorkizuneko uztetan izan daitezkeen galerengatik kalteordainak.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzea balora dezan errenta aitorpenean kontuan hartu beharrezko modulu fiskalak murriztea, ustiategiak kaltetutako eremuan dituzten nekazariantzat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paisaiaren aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENK BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, 2009ko ekainaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paisaiaren aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,
Nafarroako Gobernua premiatzen
da paisaiaren aldetik duten
interesagatik babestu beharreko
mahastien katalogoa egin dezan**

Lehen. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean paisaiaren, historiaren edota kualitateen aldetik duten interesagatik babestu beharreko mahastien katalogoa egin dezan.

Bigarrena. Behin eginda dagoenean gorde nahi diren mahastien katalogoa, Nafarroako Gobernuak mahastiak kentzearen ordezkio mekanismoren bat sustatu eta adostuko du mahastigintza eta ardogintza sektoreko eragileekin, mahastizainari laborantzaren bideragarritasuna bermatuko dion pizgarri baten bidez.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (6. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea. (6. or.).

V. Iruzkina eta gomendio orokorrak. (6. or.).

V.1. Aurrekontua, aurrekontu-aldaketak eta kontu orokorra (6. or.).

V.2. Administrazio-kontratazioa (7. or.).

V.3. Hirigintza (7. or.).

I. eranskina.- 2006ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren 2006ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Berriozarko Udalak 2,7 kilometro koadroko hedadura eta 8.555 biztanle ditu. Hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

(eurotan)

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2006-12-31n
Udala	5.737.724,72	5.254.668,00	73

Udala ondoko mankomunitate hauetako parte da:

- Iruñerriko Mankomunitatea, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamenduak eta eskualdeko hiri garraiokoak.

- Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Horren bidez emandako zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, droga-menpekotasun-programa eta abegi eta gizarte-orientazioa.

2006ko ekitaldian Berriozarko Udalarari aplikatzekoa izandako araubide juridikoa honako hau izan da, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua onesten duena.

- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Berriozarko Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua agertzen da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udaleko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Berriozarko Udalaren 2006ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinengana, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Berriozarko Udalak 2006an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Zein zen udalaren finantza-egoera 2006ko abenduaren 31n.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005eko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen egoera-balantzea.

- Galera eta irabazien kontua.

- Oroitidazkia.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Berriozarko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Behin betiko aurrekontua 6.365.380 eurokoa da. Gastuen betetze-maila ehuneko 90ekoa da, eta dirusarrerena, ehuneko 89koa.

Transferentzia arruntek udalaren dirusarreraren ehuneko 47 egiten dute, eta zergak eta tasek, ehu-

neko 52. Zuzeneko zergak ehuneko 116ko neurrian betetzen dira, eta zeharkakoak, ehuneko 125ean. Bestalde, langileen gastuek eta ondasun eta zerbitzuen erosketakoek betebeharrak aitortuen guztizkoaren ehuneko 75 egiten dute.

Ekitaldia ixtean superabit doitua 313.546 eurokoa zen (412.758 eurokoa 2005eko ekitaldian).

Epe luzeko zorpetzea, 2006ko abenduaren 31n, 1.744.268 eurokoa zen.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, etorkizuneko ekitaldietako gastuak finantzatzeko likidezia, 549.343 eurokoa zen 2006ko ekitaldia ixtean.

Ekitaldia ixtean udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 2ko zorpetze-maila eta ehuneko 6ko zorpetze-muga.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, aurreko txostenetako gomendio nagusiak kontuan hartu dituzte.

V. IRUZKIN ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

V.1. AURREKONTUA, AURREKONTU-ALDAKETAK ETA KONTU OROKORRA

- *Aurrekontua onetsi behar da dagokion ekitaldia hasi aurretik, kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan dadin.*

- *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu aldaketen izapidetzea, eta halakorik balego kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezen.*

- *Oroitidazkia gehitu behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jaso behar da.*

V.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

V.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

			Esleipena
Armairuz eta dutxetarako trenkada fenolikoroz hornitzea eta haiek muntatzea, Berriozar Hiribideko 6. zenbakiko langileen aldageletan.	Homidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5.781
Apalez hornitzea eta haiek muntatzea, Berriozar Hiribideko 6. zenbakiko obra-biltegian.	Homidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	6.824
Argizatze-azterlan baten homidura, Berriozar Hiribideko 6. zenbakiko obra-biltegi eta -aldageletarako.	Homidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5.654
Udal kirolegiko zerbitzu-gutuna.	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	7.500

Eginiko berrikuspenetik ondorioztatzen da ezen, oro har, espedienteen izapidetzea kontratulegediari jarraituz egiten dela.

V.2.2. Inbertsioak

Espediente hau aztertu da:

			Esleipena
Udaletxe eta kultur etxe berria eraikitzea	Obra	Lehiaketa irekia	4.258.765

Aztertutako laginaren arabera eta orokorrean, hauxe gomendatzen dugu:

- *Aginduzko txosten juridikoa gehitzea, bai eta esleipenen publizitatearen justifikazioa ere.*
- *Kasuan kasuko zuinketa-akta egin behar da.*
- *Esleipena jakinarazi izanaren berri espedienteen jaso behar da.*
- *Kontratua formalizatu behar da legediak aurreikusitako epeetan.*

Ondorioztapen modura, hauxe esan dezakegu: udalak, oro har, bete egiten du kontratazio-araudia, baina aurreko paragrafoetan aipatzen diren lege-mailako betekizunak bete behar ditu.

V.3. HIRIGINTZA

Udalak 2005eko uztailan esleitu zituen Udal Plan Orokorra prestatzeko laguntza teknikoko lanak, udal planeamendu orokorren homologaziorari buruz Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean jasotako xedapenak betetze aldera.

2006ko otsailean, udalak Lurraldearen Erabile-rarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 56. artikulua betez, Udal Plan Orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dago. Aipaturiko foru legeak ezartzen du dokumentu hori izapidetzea nahitaezkoa dela 2.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta horixe da Berriozarren kasua.

Udalak Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko inbentario bat dauka, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala.

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eratu behar da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 26. artikuluan araututakoa.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Castejóngo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Castejóngo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Castejóngo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (8. or.).
- II. Helburua (9. or.).
- III. Norainokoa (9. or.).
- IV. Iritzia (9. or.).
 - IV.1. Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu orokorra. (10. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (10. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (10. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena (12. or.).
 - V.1. Castejóngo Udala (12. or.).
 - V.2. "Solidaridad" egoitza mistoa (15. or.).

V.3. Udal Musika Eskola (17. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (19. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (19. or.).

VI.2. Langileria (19. or.).

VI.3. Administrazio-kontratazioa. (19. or.).

VI.4. Inbentarioa-ibilgetua (20. or.).

VI.5. Hirigintza (20. or.).

VI.6. Gorabeherak (20. or.).

Eranskina: Castejóngo Udalaren 2006ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orrien oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen ("Solidaridad" egoitza mistoa eta Udal Musika Eskola) auditoria egin du, 2006ko ekitaldiari dagokiona.

Castejón udalerrriak 18,4 kilometro koadroko hedadura eta 3.887 biztanle (2006ko urtarrilaren 1ean) ditu. 2006ko abenduaren 31n, udalaren eta bere erakunde autonomoen zifra adierazgarrienak honakoak dira:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileria
Udala	8.912.842	9.271.095	54
"Solidaridad" egoitza mistoa	639.830	642.605	25
Udal Musika Eskola	80.126	80.126	5

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea. Horren bidez ematen dira, besteak beste, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak.

b) "Ebro" Kirol Mankomunitatea. Horren bitartez kudeatzen dira kirol-jarduerak.

Castejóngo Udalari aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua onesten duena.

- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Castejóngo Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua adierazten da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari eta finantza-egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean jaso dugu udalak prestaturiko finantzen egoera-orrien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Castejóngo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Castejóngo Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Castejóngo Udalaren 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen, behinenak diren alderdi guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta lor-

turiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Castejóngo Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2006an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia zein neurritan bete den.

c) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen finantza-egoera, 2006ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Castejóngo Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta haren erakunde autonomoenak: "Solidaridad" egoitza mistoa eta Udal Musika Eskola.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontu-betetzearen egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen eta bere erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.

Udalak ez du finantza-orri bateraturik aurkeztu. Halaber, ez du aurkeztu ez udalaren ez eta erakunde autonomoen galera eta irabazien konturik.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoari loturik, Castejóngo Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Aurreko III. Atalean aipatu dugun bezala, udalak ez du kontabilitateko egoera-orri bateraturik aurkeztu; horrenbestez, gure iritzia da udalaren eta erakundeetako bakoitzaren kontabilitateko egoera-orri banakatuei buruzkoa.

Eginiko azterlanaren emaitza da honako iritzia:

IV.1. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTU OROKORRA.

IV.1.1. Udala

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1998koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa egiaztatzea; saldo hori, 2006ko abenduaren 31n, 23.182.574 eurokoa zen.

- Udalak ez du egin finantzen egoera-orri bateaturik.

- Finantza-pasiboen zerrendan sarturiko zorren zenbatekoa, 2006ko abenduaren 31n, 5.093.437 eurokoa zen.

2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak 3.922.055 euroko guztizko kopurua aipatzen du jasotako maileguren ondoriozko hartzekodunen kontzeptupean. Beraz, balantzean sartutako zorkopuru hori behar lukeena baino 1.171.382 euro gutxiagoan dago balioetsita. Aurreko urteetatik datorren akats informatikoa da, eta 2007ko balantzean zuzendu da.

Aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzirik, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.1.2. Erakunde autonomoak

Erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko kontu orokorrek fidelki islatzen dute, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa dute, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioak oro har legezketasun printzipioa jarraitu duela, nahiz eta defentsa juridikoko zerbitzuaren kontratazioan legezko babesik eza nabaritzen den.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

IV.3.1. Udala

Hasierako aurrekontua 11.240.289 eurokoa da, eta behin betikoa, 11.649.380 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 77koa da, eta dirusarrerana, ehuneko 82koa.

Dirusarrerei dagokienez, tasen eta bestelako dirusarreraren betetzea ehuneko 461ekoa da, eta ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 29 egiten dute. Betetze-maila altu horren zergatia da 2006an Cas-tejóngo Udalak hitzarmen bat egin zuela Sociedad Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A. sozietatearekin, eta hitzarmen horren bitartez adostu zen, ziklo konbinatuko argindar-sorgailu termoelektriko berri bat eraikitzeke asmoa zela-eta, udalari bost milioi euro ordaintzea tasa, dirusarrera eta bestelako prezio publikoen kontzeptuan. Diru hori ordaintzekoa zen 2006 eta 2007ko ekitaldietan. Horrez gain, milioi bat euro ordainduko ziren, energia-ikasgela bat eraikitzeke. 2006ko ekitaldian, udalak erregistratu ditu zeharkako zergetan eskuraturiko 906.967 euro, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren (EIOZ) kontzeptuan, bai eta 2.046.517 euro ere, tasak eta bestelako dirusarrerak kontzeptuan, zeinak dirusarrera gisa jasota baitzeuzkan, hasiera batean, udalak; zehazki, kapital-transferentziei dagokien 7. kapituluan jasota.

Gastuei dagokienez, ehuneko 77ko errealizazio-ehunekoa, betetze apala, gehienbat da inbertsio errealean kapituluaren ondoriozkoa (ehuneko 60ko betetzea). Desbideraketa garrantzitsuenak gertatu dira hiribidearen (III. fasea), biribilgune eta errepidearen eta udal igerilekuen birmoldaketaren obretan.

Udalaren 2006ko ekitaldiari egoztekoak diren dirusarrerei gastuak kenduta (aurrekontu-emaizta doitu), emaitza da 715.261 euroko superabita, aurreko urteko 284.682 euroko defizitari kontrajar-tzen zaiona.

2006ko abenduaren 31n, finantza-zorrak 5.093.437 euro egiten zuen, eta 2006an 1.500.000 euroko mailegu bat izenpetu zen.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin bate-ratua, hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko likidezia, 675.400 eurokoa da.

Aurrezki garbia ehuneko 26,24koa da; horrek esan nahi du dirusarrera arruntak handiagoak izan direla gastu arruntak eta finantza-gastuak baino, guztira 1.828.381 euroan. Egoera horri mesede egin diote aipaturiko hitzarmenetik eratorritako ohiz kanpoko dirusarrera kontabilizatuek.

Ekitaldiaren amaieran, udalaren finantza-egoe-raren ezaugarriak hauexek ziren: zorpetze-maila altua, dirusarrera arrunten ehuneko 7koa, eta ehuneko 33ko muga.

IV.3.2. Erakunde autonomoak

A) "Solidaridad" egoitza mistoa.

"Solidaridad" egoitza mistoa izaera administratiboko erakunde autonomo bat da, helburu gisa zaharrei harrera egin eta haiek zaintzea duena.

Hasierako eta behin betiko aurrekontua 635.910 eurokoa dauka, eta betetze-maila, ehuneko 101ekoa, gastuetan eta dirusarreretan.

Ez dauka epe luzeko finantzaketarik.

Aurrekontu-emaiza, ekitaldiko dirusarrerak ken gastuak, 2.775 euroko superabita da. Halere, 2006ko abenduaren 31n diruzaintzako gerakina

negatiboa da, eta 27.874 eurokoa da. Datu hau kontuan hartu zen hurrengo ekitaldirako aurrekontua prestatzean; horrenbestez, zenbateko horren adinako superabitarekin onetsi zen.

B) Udalaren Musika Eskola.

Udal Musika Eskola udal ikastetxe publiko bat da, eta bere titulartasuna Castejóngo Udalarena da.

Hasierako eta behin betiko aurrekontua 90.650 eurokoa dauka, eta betetze-maila, ehuneko 88koa, gastuetan eta dirusarreretan.

Ez dauka epe luzeko finantzaketarik.

2006ko ekitaldia ixtean, dirusarrerak gastuei berdindu zaizkie, eta aurrekontu-emaiza zero eurokoa da. Diruzaintza-gerakina, 2006ko abenduaren 31n, 5.243 eurokoa da.

V. KONTU OROKORAREN LABURPENA

Castejónko Udalak ez du 2006ko kontu orokor bateraturik egin; horrela, ba, finantzen egoera-orri banakako hauek erantsi ditugu:

V.1. CASTEJÓNGO UDALA

Udalaren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, 2006ko ekitaldia

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Likidaturiko ordainketak	Ordainketak	Betetakoa (%)	% / aitort.
1 Langileria gastuak	1.579.964,96	130.665,88	1.710.630,84	1.619.794,45	1.582.655,73	37.138,72	95	98
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	2.213.943,60	375.470,00	2.589.413,60	2.521.134,27	2.304.734,11	216.400,16	97	91
3 Finantza-gastuak	136.560,00	-14.100,00	122.460,00	121.871,78	121.871,78	0,00	100	100
4 Transferentzia arruntak	513.919,00	-6.000,00	507.919,00	504.828,98	451.504,80	53.324,18	99	89
6 Inbertsio errealak	6.335.134,70	-49.945,00	6.285.189,70	3.771.973,86	2.925.936,62	846.037,24	60	78
7 Kapital transferentziak	60.000,00	0,00	60.000,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	400.766,88	-27.000,00	373.766,88	373.238,92	373.238,92	0,00	100	100
Gastuak, guztira	11.240.289,14	409.090,88	11.649.380,02	8.912.842,26	7.759.941,96	1.152.900,30	77	87

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Dirubilketa likidoa	Egiteko dauden kobrantzak	Betetakoa (%)	kobranta (%)
1 Zerga zuzenak	2.183.450,00	0,00	2.183.450,00	1.670.114,95	1.389.162,98	280.951,97	76	83
2 Zeharkako zergak	1.600.000,00	0,00	1.600.000,00	1.178.034,82	1.167.253,85	10.780,97	74	99
3 Tasak eta bestelako dirusamerak	573.569,39	0,00	573.569,39	2.644.811,18	2.608.309,59	36.501,59	461	99
4 Transferentzia arruntak	1.258.641,99	113.935,80	1.372.577,79	1.324.148,14	1.080.513,23	243.634,91	96	82
5 Ondare dirusamerak	180.321,94	0,00	180.321,94	152.140,64	43.030,28	109.110,36	84	28
6 Inbertsioen besterentzea	600.000,00	0,00	600.000,00	282.222,25	237.627,04	44.595,21	47	0
7 Kapital transferentziak	3.132.605,82	0,00	3.132.605,82	519.622,86	296.547,26	223.075,60	17	57
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	295.155,08	295.155,08	0,00	0,00	0,00	0	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	1.711.700,00	0,00	1.711.700,00	1.500.000,00	1.500.000,00	0,00	88	100
Dirusarrerak, guztira	11.240.289,14	409.090,88	11.649.380,02	9.271.094,84	8.322.444,23	948.650,61	80	90

2006ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza.

Kontzeptua	2006	2005
Aitorturiko eskubide garbiak	9.271.094,84	6.250.555,82
Aitorturiko betebeharrak garbiak	8.912.842,26	6.514.529,01
Aurrekontu-emaiza	358.252,58	-263.973,19
Doikuntzak		
(-) Finantzaketaren desbideraketa positiboa	267.288,53	63.855,00
(+) Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	415.804,08	43.145,90
(+) Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	208.492,43	0,00
Aurrekontu-emaiza doituak	715.260,56	-284.682,29

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2006ko abenduaren 31n

Kontzeptuak	2005eko ekitaldia	2006ko ekitaldia	Aldea, %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.430.570,01	1.104.868,73	-23
Ekitaldiko aurrekontukoak	999.976,67	948.650,61	
Itxitako aurrekontuetakoak	282.099,55	304.097,59	
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	387.609,00	182.753,30	
Gastuak ordaintzea.		1.801,75	
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	-239.115,21	-283.493,31	
(-) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00	-48.941,21	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	1.448.099,39	1.407.267,06	-3
Ekitaldiko aurrekontukoak	1.019.297,86	1.153.016,15	
Itxitako aurrekontuetakoak	1.559,96	20.602,78	
Dirusarreren itzulketa	0,00	0,00	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	427.241,57	233.648,13	
+ Diruzaintzako funts likidoak	317.530,86	878.156,66	177
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00	408.727,48	
= Diruzaintzako gerakina, guztira	300.001,48	984.485,81	228
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	63.855,00	309.085,56	
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiek sortua	0,00	0,00	
Gastu orokometarako diruzaintzako gerakina	236.146,48	675.400,25	186

2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

AKTIBOA

Izena	2005	2006
A IBILGETUA	19.692.822,02	23.182.573,63
1 Ibilgetu materiala	8.748.202,27	9.110.682,88
2 Ibilgetu ez-materiala	317.492,62	385.919,22
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	10.549.494,74	13.608.339,14
4 Herri ondasunak	77.632,39	77.632,39
5 Ibilgetu finantzarioa	0,00	0,00
B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0,00	0,00
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	0,00
C IBILKORRA	2.101.023,07	2.437.961,80
7 Izakinak	0,00	0,00
8 Zordunak	1.686.334,35	1.462.647,28
9 Kontu finantzarioak	414.688,72	975.314,52
10 Finantzaketa-egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00	0,00
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00	0,00
AKTIBOA, GUZTIRA	21.793.845,09	25.620.535,43

PASIBOA

Izena	2005	2006
A FUNTS BEREKIAK	17.518.647,32	20.228.607,56
1 Ondarea eta erreserbak	7.489.161,26	7.489.161,26
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	6.601.964,85	8.792.302,23
3 Kapital-dirulaguntzak	3.427.521,21	3.947.144,07
B ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK	0,00	0,00
4 Homidurak	0,00	0,00
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.120.854,02	3.247.615,10
5 Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak	2.120.854,02	3.247.615,10
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.154.343,75	2.144.312,77
6 Ixkitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.104.654,53	2.095.371,56
7 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	49.689,22	48.941,21
PASIBOA, GUZTIRA	21.793.845,09	25.620.535,43

V.2. "Solidaridad" egoitza mistoa

"Solidaridad" egoitza mistoaren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, 2006ko ekitaldia.

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Likidaturiko ordainketa	Egiteke dauden ordainketak	Betetakoa (%)	% / aitort.
1 Langileria gastuak	456.810,00	0,00	456.810,00	469.846,73	469.846,73	0,00	103	100
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	170.100,00	0,00	170.100,00	166.846,14	141.467,50	25.378,64	98	85
3 Finantza-gastuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
4 Transferentzia amuntak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
6 Inbertsio errealak	9.000,00	0,00	9.000,00	3.136,89	2.258,14	878,75	35	72
7 Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Gastuak, guztira	635.910,00	0,00	635.910,00	639.829,76	613.572,37	26.257,39	101	96

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Dirubilketa likidoa	Egiteke dauden kobrantzak	Betetakoa (%)	kobrantza (%)
1 Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
2 Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
3 Tasak eta bestelako dirusarrerak	205.090,00	0,00	205.090,00	227.081,53	227.081,53	0,00	111	100
4 Transferentzia amuntak	430.820,00	0,00	430.820,00	415.523,13	415.523,13	0,00	96	100
5 Ondare dirusamerak	0,00	0,00	0,00	0,16	0,16	0,00	0	0
6 Inbertsioen besterentzea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
7 Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Dirusarrerak, guztira	635.910,00	0,00	635.910,00	642.604,82	642.604,82	0,00	101	100

2006ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza.

Kontzeptua	2006	2005
Aitorturiko eskubide garbiak	642.604,66	578.139,96
Aitorturiko betebeharrak garbiak	639.829,76	586.903,29
Aurrekontu-emaiza	2.774,90	-8.763,33
Doikuntzak		
(-) Finantzetaren desbideraketa positiboa	0,00	0,00
(+) Finantzetaren desbideraketa negatiboa	0,00	0,00
(+) Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0,00	0,00
Aurrekontu-emaiza doitua	2.774,90	-8.763,33

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2006ko abenduaren 31n

Kontzeptuak	2005eko	2006ko ekitaldia	Aldea
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.895,99	0,00	-100
Ekitaldiko aurrekontukoak	0,00	0,00	
Itxitako aurrekontuetakoak	13.656,64	13.656,64	
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	0,00	0,00	
Gastuak ordaintzea.			
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	-11.760,65	-13.656,64	
(-) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00	0,00	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	33.814,36	37.438,59	11
Ekitaldiko aurrekontukoak	23.701,48	26.257,39	
Itxitako aurrekontuetakoak	388,47	388,47	
Dirusamaren itzulketa	0,00	0,00	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	9.724,41	10.792,73	
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.152,38	9.564,42	203
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00	0,00	
= Diruzaintzako gerakina, guztira	-28.765,99	-27.874,17	-3
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiek sortua	0,00	0,00	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-28.765,99	-27.874,17	-3

V.3. Udal Musika Eskola

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Likidaturiko ordainketak	Egiteke dauden ordainketak	Betetakoa (%)
1 Langleria gastuak	75.500,00	0,00	75.500,00	71.094,49	64.874,36	6.220,13	94
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	9.050,00	0,00	9.050,00	7.210,05	6.033,89	1.176,16	80
3 Finantza-gastuak	900,00	0,00	900,00	959,79	959,79	0,00	0
4 Transferentzia aruntak	1.700,00	0,00	1.700,00	862,00	862,00	0,00	0
6 Inbertsio errealak	3.500,00	0,00	3.500,00	0,00	0,00	0,00	0
7 Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
Gastuak, guztira	90.650,00	0,00	90.650,00	80.126,33	72.730,04	7.396,29	88

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa Gehik./Murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Dirubilketa likidoa	Egiteke dauden kobrantzak	Betetakoa (%)
1 Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
2 Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
3 Tasak eta bestelako dirusarrerak	37.400,00	0,00	37.400,00	31.346,80	31.346,80	0,00	84
4 Transferentzia aruntak	51.450,00	0,00	51.450,00	48.778,42	39.152,77	9.625,65	95
5 Ondare dirusarrerak	0,00	0,00	0,00	1,11	1,11	0,00	0
6 Inbertsioen besterentzea	1.800,00	0,00	1.800,00	0,00	0,00	0,00	0
7 Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0
Dirusarrerak, guztira	90.650,00	0,00	90.650,00	80.126,33	70.500,68	9.625,65	88

2006ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza.

Kontzeptua	2006	2005
Aitorturiko eskubide garbiak	80.126,33	80.232,19
Aitorturiko betebeharrak garbiak	80.126,33	80.647,94
Aurrekontu-emaiza	0,00	-415,75
Doikuntzak		
(-) Finantzetaren desbideraketa positiboa	0,00	0,00
(+) Finantzetaren desbideraketa negatiboa	0,00	0,00
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0,00	0,00
Aurrekontu-emaiza doituak	0,00	-415,75

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2006ko abenduaren 31n

Kontzeptuak	2005eko	2006ko	Aldea
+ Kobratzeko dauden eskubideak	216,50	9.659,15	4362
Ekitaldiko aurrekontukoak	196,00	9.625,65	
Itxitako aurrekontuetakoak	0,00	108,00	
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	0,00	0,00	
Gastuak ordaintzea.			
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	20,50	-74,50	
(-) Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00	0,00	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	4.299,61	7.864,79	83
Ekitaldiko aurrekontukoak	3.268,80	7.396,29	
Itxitako aurrekontuetakoak	0,00	0,00	
Dirusarreren itzulketa	0,00	0,00	
Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.030,81	468,50	
+ Diruzaintzako funts likidoak	9.380,30	3.448,88	-63
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00	0,00	
= Diruzaintzako gerakina, guztira	5.297,19	5.243,24	-1
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	0,00	0,00	
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiek sortua	0,00	0,00	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	5.297,19	5.243,24	-1

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

• *Aurrekontua onetsi behar da dagokion ekitaldia hasi aurretik, halako moldez non kudeaketa-tresna gisa erabili ahalko baita, hala udalarena nola bere erakunde autonomoena.*

• *Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitatearen egoera-orri bateratuak egin eta aurkeztu behar dira.*

• *Balantzearen pasiboan behar bezala erregistratu behar dira zorrak.*

• *Ordenantzak zuzendu behar dira, halako moldez non zerga-tasak bat etorriko baitira Nafarroako Aldizkari Ofizialean aplikatu eta argitaratuekin.*

• *Dirulaguntzen ematea arautuko duten oinarriak argitaratu behar dira.*

• *Agentzia Exekutiboarekiko kontratu eguneratua eduki behar da.*

• *Tasa eta prezio publikoekin finantzaturiko zerbitzuen kostuari buruzko azterlanak prestatu behar dira.*

VI.2. LANGILERIA

“Solidaridad” egoitza mistoa eta Udal Musika Eskola erakunde autonomoetako plantilla organi-

koak, udalekoarekin batera, 2006ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onetsi eta 2006ko maiatzaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Lanaldi osoa duen funtzionario bati aparteko orduak ordaindu zaizkio. Langileen Estatutuak xedatzen du ezein kasutan ez dutela aparteko orduetarako eskubiderik izanen osagarri hori jasotzen duten funtzionarioek; horrenbestez, txosten honen idazketa-fasean, udalak ekin dio kontzeptu horretan ordaindurikoa erreklamatu eta berreskuratzekeko prozedurari.

Beraz, *gure gomendioa da:*

• *Araudiak ezarritako epeetan onetsi eta argitaratu behar da plantilla organikoa.*

• *Langile-espeditenteak osatu behar dira langileek beren familia-egoerari buruz eginiko aitorpenarekin, zeina eguneratuta eduki behar baita.*

• *Aparteko orduei dagokienez, kontuan hartu behar da ordu horiek egiteari eta horretarako murriztapenei buruzko araudi indarduna, eta, halaber, lanaldi eskusiboko osagarria jasotzen duten langileei ordu horiek ordaintzea arauz kanpokoa dela.*

VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

VI.3.1. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.

2006ko ekitaldian, hornidurekin eta zerbitzu-ematearekin zerikusia duten zenbait kontratazio-espeditente hasi dira.

Kontratazio espeditente hauek aztertu ditugu:

Espeditentea	Esleipen-prozedura	Esleipenaren zenbatekoa
Zaharberitze eta kontserbazio arkeologikoa	Negoziatua, publikitadeduna	60.000
Udaletxearen eta kultur etxearen garbiketa	Negoziatua, publikitadeduna	Esleitu gabe
Kulturguneen kudeaketa	Lehiaketa irekia	165.000

Gure azterketaren arabera, behar bezala errespetatu da aplikatzekoa den araudia.

Halaber, eta egiaztatu dugunez, udalaren hiri-gintza-aholkulariarekin izandako kontratuak jadanik gainditu du 6 urteko gehieneko epea, garai hartan indarra zuen foru legediak ezarritakoa.

Bestalde, kanpo-aholkularitza juridikoaz arduratzen den bulegoarekin inolako kontratazio-espeditenterik izapidetu edo inolako kontraturik sinatu izanaren inolako erakusgarririk ez dugu ikusi,

nahiz eta gastuak kasuan kasuko fakturen bitartez frogatuta dauden.

Hona gomendioak:

• *Idatziz garatzea bai udalean bai erakunde autonomoetan aplikaturiko erosketa-prozedura, eta berariaz zehaztea araudiak ezarritakoaren ildotik aholkularitza juridikoari nahiz udaleko kontu-hartzailetzari esleitu zaien eginkizuna.*

• *Udalari kanpo-aholkularitza juridikoa emateko laguntza-kontratua esleitzeko prozedura egokiari ekitea, kontratuei buruzko foru legedian xeda-*

tuari jarraikiz, eta kontratu-legeek ezarritako gehieneko epea gainditzen duten isilbidezko luzapenak saihestea, udalaren hirigintza-aholkularia kontratazko espediente berri bat hasiz.

VI.3.2. Inbertsioak

Ondotik ematen dugu aztertutako kontratazio-espedienteen xehetasun zenbait:

Espedientea	Esleipen-prozedura	Esleipenaren zenbatekoa
Hiribidea (III. Fasea)	Lehiaketa irekia	503.150
Estalitako igerileku-gunea	Lehiaketa irekia Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	Esleitu gabe 3.500.437
Futbol-zelaiko aldagelak eta harmailak (*)	Lehiaketa irekia	974.400

(*) 2005ean esleitua

Oro har, aztertutako espedienteetan errespetatu egin da esleipen-prozeduretan indarrean dagoen araudia, nahiz eta hobetzeko moduko alderdi hauek aurkitu diren:

Hiribideko III. Fasearen obretarako kontratua epez kanpo formalizatu da, eta, kontratuak hasiera batean aurreikusten zuen exekuzio-epea gainditu egin den arren, obren harrera-akta ageri da, eta bertan ohartarazten da obrak egin direla eta udalaren onespina izan dutela.

Gure gomendioak:

- *Espedienteetan dokumentu bidez jasota utzi behar da badagoela kreditua.*
- *Obrak zein epetan egiten diren kontrolatzea, eta, kasua bada, egoki diren aldaketak onestea.*

VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

• *Udal ondasunen eskriturazte- eta erregistro-prozesua burutu behar da, hala jabari publikoko ondasunena nola ondare- eta herri-ondasunena.*

• *1998ko udal inbentarioa eguneratu eta onetsi behar da, eta alden eta bajen kontrola eta jarraipena egiteko halako sistema bat ezarri behar da, non erraztu egingen baitu etengabeko eguneratzea eta kontabilitatean ibilgetuarekin konektatuta egotea.*

VI.5. HIRIGINTZA

Castejóngo Udaleko plangintza-arau subsidarioak 1991ko maiatzekoak dira, eta zenbait aldaketa jasan dituzte.

2007ko uztailan, udalak jendaurrean ipini zuen Udal Plan Orokorrean jasotako Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) Dokumentu hori egin zen Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea betetzeko.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege horrek hiru urteko epea ezar-

tzen du, 2006ko martxora arte, aurrekonplangintza-araua egokitzeko.

2006ko ekitaldian zehar bi hirigintza-hitzarmen sinatu dira.

Horregatik guztiagatik, honakoa gomendatzen dugu:

• *Eutsi egin behar zaio Udal Plan Orokorrearen prestaketari, betiere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko xedapenei egokitzuz.*

• *Lurzoruaren udal ondarea eratu eta kudeatu behar da Udalaren gainerako ondasunetatik bereizita, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak adierazten duen bezalaxe, sarrerak eta irteerak erregistratuz, hala lursailenak nola eskudiruarenak, eta araudian ezarritako helburuetarako erabili direla justifikatu behar da.*

• *Hirigintza-hitzarmenen erregistro ofizial bat formalizatu behar da, diligentziatua, zenbakitua eta abar.*

VI.6. GORABEHERAK

2006ko abenduaren 31n, honako erreklamazio hauek dira nabarmengarriak:

• *Trenaren museoa eraikitzeaz arduratutako enpresaren errekurtsioa, udalak onetsitako likidazioaren kontrakoa. Auzitan dagoen zenbatekoa 184.641,96 eurokoa da.*

• *Elektrizitate-konpainia batek aurkeztutako zenbait errekurtsio, hirilurraren gaineko kontribuzioaren zerga-oinarria zehazten duen balioespe-narekin zerikusia daukatenak.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde